



DANI BLANCO

**Pako Sudupe**

◆ IDAZLEA

## Elkarri emandako laguntza

HALA DU izenburu Kropotkin printze errusiar anarkistaren liburu famatu batek. Darwinek eta bereziki haren epigono Huxley eta Spencerrek azpimarratzen zuten ezen bizimodua ateratzeko borroka zela nagusi espezien bilakaeran eta hautespen naturalean, eta ez elkarri emandako laguntza; eta Kropotkinnek, berriz, alderantziz, borrokarena ukatu gabe, elkarri laguntzearen garrantzia azpimarratu zuen.

Darwinek Hego Amerikan, bereziki Galapagos uhartean aztertutako espezieetatik atera zuen bere ondorio nagusia, eta Kropotkinnek, berriz, Siberian eta Mantxurian egindako behaketetatik: naturan gertatzen ziren hondamendiei –elurte izugarriak– eta espezie etsaiei aurre egiteko –Darwinen lana oso aintzakotzat zuen; iruditzen zitzaion alde txarretik garatu zutela bere epigonoek– taldean bizitzea eta elkarri laguntzea giltzarri zirela espezieak bizirik irauteko, eta gizakion kasuan ere berdin, elkarri laguntzea ezinbesteko, borrokaren egitekoa ukatu gabe.

Honezkero irakurle batek baino gehiagok pentsatu du bere artean: Darwinek eta haren jarraitzaileek zuten arrazoi gizakioi dagokigunez, ez, Kropotkinnek; etxe-kaleratzeak, lan-kaleratzeak eta normalizazio politikorako ditugun zailtasunak eta mende-ku-goseak hobeki esplikatzen dira bizitza lehia eta borroka dela azalduta, lanpostua lortzeko eta atxikitzeko borroka, neskalaguna edo mutil-laguna lortzeko eta atxikitzeko, eta askatasun politikoa eta kulturala –euskararen garapena eta normalizazioa– lortzeko, eta elkarri laguntzeak, elkartasunak eta konpromiso

politiko-kulturalak leku gutxiago dutela.

Badu, halere, beste liburu famatu bat Kropotkinnek: *Ogiaren konkista* izenekoa. Hor, besteak beste, denontzako ongizatea proposatzen du. Gizadia aberatsa da, eta aberastasunak langile eta asmatzaileen belaunaldiek sortu dituzte teknologia sortuz eta hobetuz, eta horrela lurra bizitzeko egokiago bilakatuz. Kontua da, dakigun bezala, aberastasunok gaizki banatuta daudela, gutxi batzuen eskuetan. Zer egin behar da? Edozein eratako gobernuak deuseztatu, eta elkarrekiko laguntzan eta kooperazioan oinarrituriko gizarte bat lortu, estatu erakunderik gabeko gizarteak.

*Aberastasunok gaizki banatuta daude, gutxi batzuen eskuetan. Zer egin behar da? Edozein eratako gobernuak deuseztatu, eta elkarrekiko laguntzan eta kooperazioan oinarrituriko gizarte bat lortu, estatu erakunderik gabeko gizarteak*

Zaila da egun ezertan sendo sinestea, baina zein gustura irakurtzen diren egun ere duela ehun eta gehiago urte idatzitako liburuok. Gure baitan leku bat egitea merezi duen autore bat da, elkarlaguntzak eta kooperazioak merezi duten bezala. ■



## IRITZIAREN LEIHOA

### BERTSO BERRIAK

**Miren Amuriza Plaza**

XDZ

**Doinua:** Gure herri ttiki hau da.

## Zure sorgina askatzen

Moja bat meza laguntzen preso habito baltzean, aktorea bat antzezten emaztea eskaratzean, modeloak kulerotan udaberriko pasean, ziklisten podiumeko txanpainaren lorratzean... Horrela agertu ginen androk oholtzaratzean; isilik, biluzik edo gizonezkoen atzean.

Gaur egun izan gaitezke etenik bako katea: mimoa, margolaria, bertsolaria, alkatea... Zergatik ez berreraiki oholtza eta artea? Sentipenak hitzez jantziz edo erantziz jakea, sorkuntzatik haratago hau baita libertatea: nola biluztu nahi dugun hautatu ahal izatea.

Gure aurretik hamaika Maurizia Aldeiturriaga, bakarrik kantatzeko gai izan zirelako gara. Femenitatea islatuz bakoitzak bere erara, malko, irrintzi, hasperen, ulu, txalo zaparrada... Egin jauzi oholtzara amona, ama, alaba! Zure sorgina askatzen animatuko al zara? ■

